


GIZA ESKUBIDEAK XXI. MENDEKO HIRIAN

SINTESI OHARRA



**Gernika
Gogoratuz**

Bakearen Aldeko Aztertegia
Centro de Investigación por la Paz
Peace Research Center



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



**Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala**

SINTESI OHARRA

Jardunaldia (online): Giza Eskubideak XXI.
Mendeko hirian
2020ko abendua

Honako hauek egindako dokumentua:
Iñigo Retolaza Eguren, Gogoratuzeko kolaboratzailea

Lankidetzak:
Gernika Gogoratu. Bakearen aldeko Ikerketa Zentroa.

Bizikidetza eta Ainiztasun Zerbitzua. Alkatetza eta Erakunde Harremanen Saila. Vitoria-Gasteizko Udala.

Egitarraren ilustrazioa: Goikipedia

Euskarazko itzulpena: Bakun, S.L.

01	Abiapuntu-esparrua	4
02	Vitoria-Gasteizko errealitatea eta erronkak	5
03	Ponentzia gidaria: Giza Eskubideen gauzatzea. Tica Font i Gregori	6
3.1	Hirietarako migrazioa	6
3.2	Desberdintasun sozio espazialak	6
3.3	Arrazakeria eta beste intolerantzia mota batzuk	6
3.4	Pertsonen arteko indarkeriak	6
3.5	Emakumeen aurkako indarkeria eta hainbat sexualitate	6
3.6	Indarkeriazko estremismoak	7
3.7	Ustelkeria	7
3.8	Krimen antolatua	7
04	Hirietatik esperientzia praktikoak	8
4.1	Utrecht. Hans Sackers, Utrecheko Udala	8
	Testuingurua, ekimenaren fokua eta inplikaturako eragileak	8
	Ikaskuntza garrantzitsuenak	9
	Barne-lidergoak	9
	Barne-erresistentzien kudeaketa	9
	Funtzionarioen prestakuntza	9
	Herritarrek kontzientzia hartzea	9
	Paradigma-aldaketa	9
	Nazioarteko aliantzak	9
4.2	Granollers. Alba Barnusell i Ortuño, Granollerseko Udala	10
	Testuingurua, ekimenaren fokua eta inplikaturako eragileak	10
	Ikaskuntza garrantzitsuenak	11
	Krisian, aukera	11
	Alde anitzeko lankidetzaren kultura	11
	Udal-lidergoa eta tokiko erantzuna COVID-19ari	11
4.3	Madril. Carlos Giménez, DEMOSPAZ	12
	Testuingurua, ekimenaren fokua eta inplikaturako aktoreak	12
	Ikaskuntza garrantzitsuenak	13
	Borondate politikoa abiapuntu-baldintza gisa	13
	Udal-eskumenak aukera gisa	13
	Faktore kritikoen arabera lehenestea	13
	Aniztasuna aintzat hartzeko begirada	13
	Alde anitzeko elkarreraginerako guneak, mundu konplexu bat hobeto kudeatzeko	13
	Sozializatze moduak	14
	Parte-hartze mailak	14
05	Hitzaldien laburpena	15
5.1	Udal-ikuspegia	15
5.2	Sektorearteko ikuspegia	15
5.3	Alde anitzeko abordatzea	15
5.4	COVID-19aren testuingurua	15
5.5	Nazioarteko testuingurua aukera gisa	15
5.6	Lege-esparru gaitzailea	16
5.7	Parte-hartzeko eta udal-politikarako guneak	16
5.8	Bizikidetzaren eta aniztasuna	16
5.9	Udal-lidergoa	16
5.10	Erakundeen berrikuntza	17
06	Parte hartzeko gunea. Iñigo Retolaza	18
6.1	Baldintzen analisia	18
	Kultura aldatzea	18
	Pertsona erdigunean	18
	Elkarrizketarako, eztabaidarako eta hitzartzeko guneak	19
	Tokiko administrazio publikoaren barruko koordinazioa	19
	Erakundeen koherentzia	19
6.2	Proposamen zehatzak biltzea	19
	Giza eskubideak eta udal-politika	19
	Herritarrak eta parte-hartze loteslea	20
	Gazteak eta parte-hartzea	20
	Aniztasunaren errespetua eta elkarbizitza	20
	Ikaskuntza soziala eta instituzionala	20
6.3	Parte hartzeko gunearen laburpena	21
07	Laburdurak eta programa	22

1. Abiapuntu-esparrua

Vitoria-Gasteizko Udaleko Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzuak Giza Eskubideak XXI. mendeko hirian jardunaldia antolatu zuen, Hirian Giza Eskubideak (GGEE) Babesteko Europako Gutuna sinatu zenetik 20 urte bete direnean.

Gure begirada XXI. mendean jarrita, globalizazioaren, gero eta urbanizazio eta haustura sozial handiagoen, klima-aldaketaren eta irauten duen pandemiaren testuingurua kontuan izanda, hiriek garrantzia berezia dute erronka horiei egunerokotasunetik, hurbiltasunetik eta tokikotik aurre egiteko orduan.

Bizikidetza eta Aniztasun Planaren (2018-2020) lehen fasea bete ondoren, Gasteizko Udalak ikaskuntza eta hausnarketa jardunaldi hori antolatu du, Bizikidetza eta Aniztasun Plan berria egitea aberastuko duten intsumoak sortzeko helburuarekin.

Jardunaldia lau unetan egituratu zen.

1. Vitoria-Gasteizko errealitatetik abiatutako planteamendua. Gorka Urtaran, Vitoria-Gasteizko alkatea.
2. GGEE-en gauzatzeari buruzko ponentzia gidaria, Tica Font i Gregori, Centre Delàs d'Estudis per la Pau
3. Hirietan GGEE-en kultura sustatzeari buruzko hiru esperientzia praktikoa: Utrecht (Hans Sakkers, Utrechteko Udala), Granollers (Alba Barnusell i Ortuño, Granollerseko Udala) eta Madril (Carlos Giménez, DEMOSPAZ).
4. XXI. mendeko hirietan GGEE-en kultura sustatzeko baldintzen analisiari eta proposamen zehatzen uztari buruzko elkarrizketa sozialak.

2. Vitoria-Gasteizko errealitatea eta erronkak

Gorka Urtaran Vitoria-Gasteizko alkateak gai honi Vitoria-Gasteizko Udalaren errealitateak hartzeko esparru orokor bat proposatu zuen.

1. Hiru ardatz lantzea: gizartea, ingurumena eta ekonomia.
2. Hiri-errealitatea: gero eta biztanleria kontzentrazio handiagoa, gero eta botere eta eragin handiagoa izateko aukera gehiago udal-politika boteretsuak eta sakonagoak diseinatu eta ezartzeari dagokionez.
3. Hiriaren erronkak: zahartze demografikoa, aniztasuna eta immigrazioa, klima-aldaketa (erresilientziarako eta ingurumenarekiko errespeturako politikak), erronka ekonomikoak, hala nola ekonomia zirkular eta berdeetarako trantsizioa, pertsonen duintasuna eta askotarikoaren inklusioa bermatzeko.
4. Ingurumen- eta gizarte-jasangarritasuna, pertsona ardatz duten eta GGEEak sustatzen dituzten balioetan (askatasuna, berdintasuna eta elkartasuna) oinarritutako udal politikekin.

Urtaran jaunak paradigma-aldaketa bat planteatu du, kultura-arloaren aniztasunetik askotarikoaren kulturara igarotzen lagunduko diguna. Premisa horretatik abiatuta, lan esparru berrian sakontzeko beharra planteatzen da.

3. Ponentzia gidaria: Giza Eskubideen gauzatzea. Tica Font i Gregori

Tica Font y Gregori Centre Delàs d'Estudis per la Pauko ikertzailea bat dator aniztasunaren mendean bizi garela esatean, eta gogorarazten digu GGEEak unibertsalak eta zatiezinak direla, non pertsona izatearen baldintza baita pertsona horien titulartasunerako baldintza bakarra. Abiapuntua hori izanik, XXI. mendeko hirietan GGEE-en kultura eraikitzeko kudeatu beharreko 8 erronka identifikatu ditu ikertzaileak:

3.1 Hirietarako migrazioa.

Urbanizazio-prozesua ez da homogenea, baina bai sutsua, batez ere logika ekonomiko batean oinarrituta, eta merkatu globalaren eskaintza eta eskaria da bitarteko. Biztanleria hazkundera mailakatua da, eta zerikusia du, halaber, landa-inguruneen despopulazioarekin (Espainia hustua).

3.2 Desberdintasun sozio espazialak.

Hiri-ekonomiak ez du nahikoa lan sortzen iristen diren pertsona guztientzat. Horrek hiri barneko hausturak sortzen ditu, non periferia jada ez baitago soilik hiri-inguruan, baita hiri-erdigunearen barrualdean ere, hemen ere oinarritzko zerbitzu publikoen gabeziaren eta kultura-bereizketaren egoerak identifikatzen baitira. Horren guztiaren ondorioz, oinarritzko GGEE-etarako sarbiderik ez duten gizarte-geruzak daude.

3.3 Arrazakeria eta beste intolerantzia mota batzuk.

Hiri asimetrikoetan bizi gara, non hiri-ingurunean bizi diren talde soziokulturalek ez duten nahi kultura nagusiak homogeneiza ditzan. Beren aniztasunari eutsi nahi diote eta aniztasun horretatik bereganatu nahi dute hiria. Horrek oposizio-jarrerak ere sortzen ditu, eta adierazpen arrazistak, aporofobikoak etab. eragiten ditu.

3.4 Pertsonen arteko indarkeriak

Indarkeria hori gune publiko zein pribatuetan gertatzen da, eta hainbat adierazpen eta intentsitate maila ditu, geografiaren arabera, Adibidez, haren intentsitate- eta adierazpen maila ez da bera Latinoamerikako edo Espainiako hirietan. Adierazpen batzuk: ekitaldi jendetsuak (adibidez, kirolak), gaueko aisialdia, eskola-jazarpena, ibilgailuen trafikoa, etab.

3.5 Emakumeen aurkako indarkeria eta hainbat sexualitate.

Indarkeria horien helburua autoestimua apaltzea da, pertsona horien gainean kontrol handiagoa izateko (adibidez, emakumeak eta LGBTBIQ komunitatea). Haren adierazpena ere askotarikoa da: soldata-diskriminazioa, ordezkaritza txikiagoa erabakiak hartzeko tokietan (kristalezko sabaia), beste identitate horiekiko jazarpena eta indarkeria.

3.6 Indarkeriazko estremismoak.

Badira ideologia bortitzeko talde batzuk proiektu politiko intoleranteak garatzen dituztenak, eta hainbat identitatetan jarduten dute (LGTBI, pobrezia-egoeran dauden pertsonak, migratzaileak, emakumeak, etab.).

3.7 Ustelkeria.

Partiendo del dato de que el 5% del PIB mundial desaparece debido a actos de corrupción, estamos ante una lacra social y privada importante.

3.8 Krimen antolatua.

Oinarrizko GGEE-en urraketari dagokienez, sektore ekonomikoaren zati batek indarkeria erabiltzen du bere helburuetarako.

Erronka horien aurrean, Font i Gregori andreak gogorarazi digu garrantzitsua dela denboran pilatutako bake-ondareari eustea, eta zerbitzu publikoak direla pilatutako ondare horren funtsezko elementuak. Halaber, azpimarratu du ekintza politiko argi eta sendoak behar direla indarkeria horiek errepikatzen dituzten egiturazko egoerak aldatzeko.

4. Hirietatik esperientzia praktikoak

Jardunaldi horretarako, honako hiri hauek aukeratu ziren, udal-politketan Giza Eskubideak ezartzeko adibide eta esperientzia zehatz gisa, tokiko testuingurutik haratago dauden lekuetara begirada altxatuz.

4.1 Utrecht. Hans Sackers, Utrechteko Udala

Testuingurua, ekimenaren fokua eta inplikaturako eragileak

2009an, Oinarrizko Eskubideen Agentziak Utrecht hiria gonbidatu zuen Joining Up oinarrizko eskubideen nazioarteko proiektuan parte hartzera. Proiektu horren helburua da ikertzea hiriek nola har dezaketen beren gain Giza Eskubideen erantzukizuna toki-mailan.

2012an, GGEE-erako Nazio Batuen Goi Komisarioak, Pillayk, Utrecht Herbehereetako Giza Eskubideen lehen hiri izendatu zuen. 2018an, Udal Kontseiluak lehen aldiz esan zuen Utrecht Giza Eskubideen hiria zela Koalizio Akordioan (2018-2022).

Ekimenak, GGEE-en irakurketa legeetik abiatu beharrean, hirian GGEE-en kultura ezartzea du helburu. Horretarako, 10 udal-politika lehenetsi eta balioetsi zituen GGEE-en ikuspegitik, Udal Kontseiluan dagoen espektriko osoaren oniritziarekin.

Ekimenak bost ezaugarri ditu:

- I Giza Eskubideak toki-mailan ezartzea kultura-prozesu bat da.
- II Giza Eskubideen lokalizazioak politika eta proiektu hobeen inspirazio-iturri izan nahi du.
- III Giza Eskubideen hiriaren marketina egitea arazotsua izan daiteke, horrek dakartzan kontraesanengatik.
- IV Giza Eskubideek agenda politikoan egon behar dute, baina politizazio han dirik gabe.
- V Toki-ekintza ahalduntzea, eta, horretarako, Giza Eskubideen aldeko hirien nazioarteko mugimendurekin loturak egitea.

Lehen fasean, 2009-2012 aldian, Utrechteko Udalak, Herbehereetako Giza Eskubideen Institutuarekin eta Tratu Berdinzalearen Batzorde Nazionalarekin batera, GGEE-en ikuspegitik hamar udal-politikak berrikusi zituzten. Fase horretan, udaleko langileek GGEE-
-ei buruzko prestakuntza jaso zuten Amnesty Internationalen eskutik.

Bigarren fasean, 2011-2018 aldian, Tokiko Giza Eskubideen Koalizioa sortu zen, eta

parte hartzea handia izan zen hainbat sektoretatik: gizarte zibileko erakundeak, abokatuak, udalak, akademiak, GKEak, oinarritzko erakundeen ekimenak, kultura-erakundeak, sozialki arduratsuak diren enpresak eta beste batzuk.

Ikaskuntza garrantzitsuenak

Barne-lidergoak. Udal kudeaketa taldeak, 2010-2018, alkatea eta alkateordeak buru zirela, hasierako barne eszeptizismoa murrizten lagundu zuen. Berariazko alkateorde bat izendatu zen Giza Eskubideekin lotutako gaietarako. Horren ondorioz, beste goi-kargudun batzuek pixkanaka beren gain hartu zuten GGEE-en diskurtsoa udal-jardunean.

Barne-erresistentzien kudeaketa. Hasiera batean ez zen erraza izan ideia udal administrazio publikoaren barrutik bultzatzea. Hainbat erresistentzia mota eman ziren, eta horrela joan ziren gainditzen:

- I Udal-lidergo berria hautatuz (alkatea eta udal goi-kargudunak).
- II Ekimena gizarteratuz eta tokiko beste eragile batzuei irekiz.
- III ekimena estatuko eta nazioarteko udal-sareak artikulatuz. Azpimarratu behar da erresistentzia horiek herbehereetako beste udalerrri batzuetan ere antzeman zirela, eta, horren ondorioz, aukera zabaldu egin behar izan zen, herbehereetatik kanpoko udal-mugimenduetara.

Funtzionarioen prestakuntza. Amnesty Internationalek GGEE-ei buruz emandako prestakuntzak udal-langileei lagundu egin zien beste begirada eta gaitasun batzuk ezartzen.

Herritarrek kontzientzia hartzea. GGEE-ak (urraketa) urruneko beste herrialde batzuetan gertatzen den zerbait bezala ulertzeko joera dago. Ez dago herritarren kontzientzia nahikorik oinarritzko eskubide horiek Herbehereetako toki-eremuetan ere urratzen direla.

Paradigma-aldaketa. GGEE-en ikuspegia aldatuz joan da azken urteotan, ingurumen-gaiak indar handiagoz txertatu dira (adibidez, Shellen aurkako kasu judizialak), duela 10 urte hori pentsaezina zen. Eran berean, COVID-19aren testuinguruak elementu berriak gehitu ditu, eta, etorkizunean, hirietan Giza Eskubideak aztertuko dituzte.

Nazioarteko aliantzak. Utrecht Giza Eskubideen aldeko nazioarteko mugimenduetan sartzeko Giza Eskubideen hiri-agenda bultzatzen laguntzen du, indar eta ahalmen eraldatzaile handiagoarekin.

4.2 Granollers. Alba Barnusell i Ortuño, Granollerseko Udala

Testuingurua, ekimenaren fokua eta inplikaturako eragileak

Granollerseko Udala 2019-2023ko Udal Jarduera Plana berrikusten ari da COVID-19aren krisiaren ondorioz, Udal Jarduera Plan hori Agenda 2030ekin lerrokatuta dago, eta hiru ardatzetan oinarrituta egituratzen da:

- I Hiri inklusiboa.
- II Eraldatzailea.
- III Hiri konprometitua eta jasangarria. Pandemiak, eta horrek hirian izandako eraginak, udal-ekintza batzuk doitzera behartu du Udala, eta krisiak kalteturako pertsoneri, enpresei eta autonomoei, kultura-sektoreari eta elkarte-sareari laguntzeko aho batez onartutako neurri sozioekonomikoen plan batekin (1,5 milioi euro) heldu zaio horri. Doitze hori hainbat sektoreren parte-hartze handiarekin egin nahi da, Hiriko Itun baten bidez.

Lehen esan bezala, ekimenaren ardatza lankidetzadynamika bat sortzea da, COVID-19aren krisiaren ondorioz hiriaren dinamismoa berreskuratu ahal izateko. Parte-hartzea gauzatzeko, itunak sei konpromiso proposatzen ditu, eta ekintza zehatzak identifikatzeko eta definitzeko oinarria izan behar dute:

- I Pertsonak proiektuen eta ekimenen erdigunean jartzea.
- II Komunitate gisa definituko gaituzten balioak dituen hiria sustatzea.
- III Hiri osasuntsu eta jasangarriaren alde lan egitea.
- IV Hiri hezitzaile eta kulturalaren eredu indartzea.
- V Hiri oparoagoa sustatzea, jarduera ekonomikoaren dinamizazioareki.
- VI Teknologia eta konektibitate digitalera irekitako hiria sustatzea.

Udal Kontseiluak, ordezkaritza politiko guztiek adostutako oinarritzko dokumentu batetik abiatuta, Hiriko Ituna proposa zezala eskatu zion Hiriko Kontseiluari (herritarren parte-hartze organo gorenari). Administrazio publikoaren, ekonomia-, gizarte-, kultura-, hezkuntza- eta kirol-eragileen eta herritarren arteko konpromisoa islatzen zuen dokumentu bat eskatu zitzaion, hiriaren dinamismoa eta bizitasuna esparru guztietatik berreskuratzeko.

Aste batzuetako lan gogorraren ondoren, Hiriko Kontseiluak "COVID-19aren ondorioz hiriaren dinamismoa berreskuratzeko Granollerseko hiri-ituna" aurkeztu zuen; goian zehaztutako funtsezko sei konpromisoak jasotzen ditu, eta Granollersen bizi diren, lan egiten duten edo Granollersekin lotura duten pertsona guztiei, erakundeei, enpresei eta instituzioei itunera atxikitze eskatzen die.

Itunak herritarren eta enpresen atxikimendu ugari jaso ditu dagoeneko. Laster hasiko dira parte hartzeko lan saioak egiten, itun honetatik eratorritako konpromisoak, ekintzak eta neurri zehatzak lantzeko. Helburua da hiriko eragile guztien jarraipenean eta inplementazioan erantzunkidetasuna eskatzen duten proiektuak adostea. Parte-hartze prozesua urrian eta azaroan egitea aurreikusten da, abenduan adostutako neurrien plana izateko.

Ikaskuntza garrantzitsuenak

Krisian, aukera. Granollerseko hiriak bizi duen krisi-egoerak atxikimendu- eta lankidetzaren dinamika sortzen lagundu du, eta horri esker, azkar egin ahal izan da aurrera Hiriko Ituna adostasunez egiteko prozesuan. 2030erako nahi den hiri-ereduari balioa emango dion kontakizun kolektibo berri bat idazteko aukeratzat ulertzen da. Argi geratu da orain arte ezezagunak ziren ziurgabetasunari eta erronkei aurre egiteko formula bakarra lankidetzaren, erantzunkidetasuna eta elkarlana direla.

Alde anitzeko lankidetzaren kultura. Aurretik Hiriko Kontseilu bat izatea, herritarren parte-hartzea eta horiek udal-administrazio publikoarekin duten harremana hobetzera bideratutako gune anitza eta askotarikoa izatea, errazten ari da sektorearteko eragile ugariaren (tokikoak eta udalaz kanpokoak) jabetza eta lankidetzaren.

Horrek aukera ematen du proposamen bateratuak egiteko eta ekintza zehatzak adosteko, eta, ondoren, jarraipena eta auditoretza soziala egin dakieke. Herritarrekin, gizarte zibilarekin eta sektore pribatuarekin, baita administrazioarekin ere, beste hiri batzuekin sarean lan eginez.

Udal-lidergoa eta tokiko erantzuna covid-19ari. Udalgintzaren zeregina funtsezkoa da, erantzun onenak, funtsean, hurbiltasunetik eman ahal izango direlako. Paradoxikoki, krisi honek udal-politika kolektiboki berrikusten lagundu du, testuinguru berrira egokitze-ko; horrek esan nahi du eskubide unibertsalak bermatu behar direla, eta zerbitzu-publikoak eta udal-politikak herritarren premia berrietara egokitu behar direla.

4.3 Madril. Carlos Giménez, DEMOSPAZ

Testuingurua, ekimenaren fokua eta inplikaturako aktoreak

Carlos Giménez antropologo sozialak eta DEMOSPAZeko zuzendariak Madrilekin lotura duten 3 kasu aurkeztu zituen:

- I Madrilgo Udalaren GGEE-en Plan Estrategikoa (aurreko legegintzaldia Car mena alkatearekin).
- II Hiriko indarkeriei buruzko diagnostiko parte-hartzailea.
- III Kulturen arteko esku-hartze komunitarioko proiektua, aniztasun handiko au zoetan (sarean beste hiri batzuekin, Bilborekin, besteak beste). Proiektu guztiek zerikusia dute GGEE-en ikuspegia udal-politikan sartzearekin (maila kontzeptual eta operatiboan), eta garrantzia handia ematen zaio parte har tzeko metodologiaren aplikazioari. Horrekin, pertsonarengan oinarritzen den eta aniztasuna errespetatzen duen herritartasun demokratikoa sustatu nahi da (kulturartekotasunean oinarritutako herritartasuna).

Kasu guztietan, arreta berezia jartzen da jardunaren testuinguruan kokaturako kontzeptu- eta metodologia-esparru baten garapenean, eta, hortaz, pentsamendu- eta ekintza-jarraibide zehatzak eta kokatuak ematen dituzte. Hiru ekimenek GGEE-ei, hiriko indarkeriei eta kulturarteko harremanen kudeaketari buruzko kontzeptu-esparruak garatzen dituzte, hurrenez hurren. Eta hortik aurrera, esparru operatiboak ezartzen dituzte, herritarren parte-hartze handia sustatzen dutenak eta hainbat sektore eta eragileren arteko harremanak ezartzen dituztenak (John Paul Lederach-ek nekez gertatzen diren elkarriketak deitzen die). Hiru kasuek herritarren parte-hartzea, hiriko indarkeria, GGEE-en kultura udal-politikan txertatzea eta aniztasunaren kudeaketa jorratzen dituzte, kulturarteko eta bizikidetzaren ikuspegitik.

Aipaturako hiru adibideek harreman, parte-hartze eta kulturarteko alderdi sendoa dute. Kasu guztiak udal-ekimenetatik abiatu arren (exekutibotik hasi eta udal-kontseilura arte), zenbait egitura sortu dira beste sektore eta eragile soziokomunitario eta pribatu batzuekin, bai estatu mailan (AIPAZ, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa, DEMOSPAZ, La Caixa, era askotako erakunde sozio-komunitarioak, etab.), bai nazioartean (PNUDArt eta Uruguako hiriak, Cabo Verde, Bolivia, Hiriko Indarkeriari buruzko Munduko Foroa, emakumeenganako diskriminazio ororen aurkako nazioarteko konbentzioa, etab.).

Aurkeztutako ekimenek hainbat motatako lankidetzaren mekanismoak eta interakzio-guneak erabiltzen dituzte, aniztasunaren kudeaketa hautemangarrian oinarrituta: GGEE-en bulegoa eta GGEE-en Foroa (GGEE-en Plan Estrategikoa), hirien arteko ikaskuntza-ekintza PNUDArt proiektuaren bidez (Hiriko Indarkeriei buruzko diagnostiko parte-hartzailea), elkarlanerako sektorearteko interakzio-guneak (John Paul Lederachen nekez gertatzen diren elkarriketen ikuspegian oinarrituta). Gune horiek guztiek ez dute instituzionaltasun-maila bera (GGEE-en udal-bulego batetik, kontsultarako eta elkarriketarako ad hoc guneetara).

1. Faktore kritikoak: hiriko indarkeriarekiko zeharkako arazo ugariaren eragile diren gizarte-faktoreak edo fenomenoak.

GGEE-en Plan Estrategikoaren kasuan, lan-mekanismoak barnekoak ere izan ziren, zeharkakotasun-ikuspegi batetik abiatuta, GGEEak udal-politiketan sartzeari dagokionez. Udal sail guztiei galdetu zitzairen nola ari diren GGEEak beren lanean txertatzen.

Ikaskuntza garrantzitsuenak

Borondate politikoa abiapuntu-baldintza gisa. Hirietan GGEE-en kultura eraikitzeak gainditu egiten ditu hauteskunde-logika eta 4 urteko kudeaketaren etorkizuna. Madrilen, Almeida alkate berriak bertan behera utzi zuen aurreko udal-taldeak GGEE-en Plan Estrategikoa ezartzeko egindako lan guztia (GGEE-en bulegoa, foroak, mahaiak).

Beharrezkoa da GGEE-en alde egingo duen kultura instituzional bat ezartzea, udal-gobernua nor dagoen alde batera utzita. Bestalde, GGEEak zenbat eta gorago jarri erabakiak hartzeko eskaileran, orduan eta errazagoa da emaitza zehatz eta jasangarriak lortzea epe ertain-luzera (Madrilgo kasuan, GGEE-en Plan Estrategikoaren zuzendaritza alkateordearen mailan jarri ziren eta Udalaren Jarduketa Planaren barruan).

Udal-eskumenak aukera gisa. Udal-mailako eskumenen katalogoa ahalik eta gehien baliatu behar da, bizikidetzaren eta Giza Eskubideen eta bakearen kultura sustatzen lagunduko duten udal-ekintzak eta -politikak ezartzeko.

Faktore kritikoaren arabera lehenestea. Ezinbestekoa da bizikidetzaren eta GGEE-en kulturaren eragina duten faktore kritikoak¹ identifikatzea, udal-politika bideratzeko eta ekintzak lehenesteko. Madrilen kasuan, honako hauek identifikatu ziren: GGEEak eta baliabideak eskuratzea, lurralde-desorekak, etxebizitza, gune publikoak, intolerantziak eta askotariko gorrotoak (arrazakeria, xenofobia, homofobia, aporofobia, etab.), herritarrek administrazio publikoarekin duten lotura, mugikortasuna eta irisgarritasuna.

Aniztasuna aintzat hartzeko begirada. Gauza bat da aniztasunarekiko errespetua, eta beste bat diferentzialismoa (ezberdintasunak handitzea). Ekin egin behar da logika diferentzialista horretara jotzea, horrek herritarren artean zatiketa eta bizikidetzaren arazoak sortzen baititu. Helburua da aniztasun hori baliatzea bizikidetzaren eta bakearen kultura lortzen lagunduko duten hiri-proiektuak diseinatzeko eta ezartzeko.

Alde anitzeko elkarreraginerako guneak, mundu konplexu bat hobeto kudeatzeko. El-karrizketarako eta lankidetzarako kultura ezartzea, sektoreartekotasunean, sekzioartekotasunean, zeharkakotasunean eta kulturartekotasunean oinarrituta. Kasu guztietan alde anitzeko logikari eutsi zaio, bai kanpora begira (herritarren kulturarteko parte-hartzea, sektoreartekotasuna), bai barrura begira (udal-sailen eta -erakundearen arteko lankidetzaren, zeharkakotasuna).

Horrek laguntza teoriko-praktikoa eskatzen du, administrazio publikoan, sektore pribatuan eta soziokomunitarioan pentsatzeko, harremanak izateko eta gauzak egiteko modu berriak ezartzen laguntzeko. Madrilen kasuan, akademiarekiko lankidetzaren funtsezkoa izan zen (UAM, AIPAZ, DEMOSPAZ), inplikaturako eragileen artean lankidetzaren eta aldeaniztasunaren kultura ezartzeko.

1. Faktore kritikoak: hiriko indarkeriarekiko zeharkako arazo ugariaren eragile diren gizarte-faktoreak edo -fenomenoak.

Sozializatze moduak. Hirian sortzen diren harremanak dira GGEE-en kultura ezartzeko erronka. Zer harreman mota ezarri behar dira? Zer harreman-moduk sustatzen dute, gutxi gorabehera, GGEE-en eta bake jasangarriaren kultura? Gutxienez hiru soziabilitate-modu identifikatzen dira; hala ere, guztiak ez dira desiragarriak GGEE-en kultura eraikitzeke:

- I Koexistentzia (gune komun batean ia harremanik eta erasorik gabe elkarrekin bizitzea, "*toki honetan zaude eta ezagutzen zaitut*").
- II Bizikidetzak (gune komun baten elkarrekin bizitzea, harremanak izatea, eta aniztasuna modu baketsuan kudeatzea, "*toki honetan zaude eta harremanak ditugu geure artean*").
- III Etsaitasuna (gune komun batean modu oldarkorrean elkarrekin bizitzea, "*toki honetan zaude eta elkar baztertzen dugu edo geure burua baztertzen dugu*"). GGEE-en aldeko apustuaren oinarria da bizikidetzan oinarritutako soziabilitate modu bat ezartzea.

Parte-hartze mailak. Batzuek egiten dute dena beti, betiere laguntzaile asko badituzte eta lan gardena egiten badute. Madrilan, Hiru Zirkuluen Teoria erabili zen partaidetza-intentsitatei toki egiteko:

- I Implikatuen zirkulua (konfiantza-harremanak, pertsona gutxi, ez dute kolektibo edo entitaterik ordezkatzeko, gizarte-eragileak eragile publikoekin nahasten ditu, arnasa luzeko begirada).
- II Kolaboratzaileen zirkulua (gai zehatzetan, auzoko 40-50 pertsonako taldeak).
- III Informatuen zirkulua (komunitate osoari informazioa ematen zaio hainbat bitartekoren bidez: irrati komunitarioa, topaketa komunitarioak, etab.). Batzuetan gerta daiteke, zenbait arrazoirengatik, pertsona batzuek zirkuluz aldatu nahi izatea, baita aldi baterako edo betiko utzi nahi izatea ere. Zaintza-ikuspegia malgua eta dinamikoa da, eta argi uzten du pertsonak parte har dezaketela beraiek hala erabakitzen dutenean, baldin eta guztion onerako lan egiteko eta lankidetzan aritzeko konpromisoa hartzen badute.

5. Hitzaldien laburpena

Goizean zehar entzundako hitzaldien bidez, elementu nagusi batzuk identifikatu ziren:

5.1 Udal-ikuspegia.

Aurkeztutako kasu guztietan, GGEE-en eta bakearen kultura sustatzera bideratutako udal-ikuspegi sendoa erakusten da, pertsona ardatz duena eta balio unibertsal batzuetan oinarritua: lankidetzaz, gardentasuna, berdintasuna, elkartasuna, inklusioa, etab. Estrategikoa da legean ezarritako udal-eskumenen katalogo osoaz jabetzea eta erabiltzea.

5.2 Sektorearteko ikuspegia.

Agenda 2030ek, eta XXI. mendean areagotzen ari diren arazo eta horien konponbideek, eragilea eta sektoreak guztiak (pribatua, publikoa, soziokomunitarioa) jauzi paradigmatico bat egitera bultzatzen ditu, sektorearteko harremanak ulertzeko eta praktikan jartzeko duten moduari dagokionez. Sektorearteko laguntza handiagoa behar da, politizaziotik eta norgehiagoka interesatutik urrun.

5.3 Alde anitzeko abordatzeak.

Aurkeztutako adibideek argi uzten dute hirian GGEE-en kultura eraikitzeko alde anitzeko harreman- eta erabaki-dinamikak sortu behar direla, eta ez alde bakarrekoak edo alde bikoak (alde anitzeko gobernantza-sistema). Sektorearteko ikuspegia (soziala, publikoa, pribatua) indar handia hartzen du, eta eragile guztiei aldarazten dizkie pentsatzeko, egiteko eta harremanetan jartzeko moduak. Nolabait, 2030 Agendak esparru global bat eskaintzen du, sektore pribatuari lekua irekitzen diona eta gizarte- eta ingurumen-erantzukizun handiagoak hartzera behartzen duena. Alde anitzeko ikuspegi horrek paradigma-aldaketa dakar inplikaturako sektore eta eragile guztientzat.

5.4 COVID-19aren testuingurua.

Bizi dugun pandemiak nabarmen eragiten die udal-dinamikei eta udal-administrazioak ziurgabetasun handiko garai hauetan jokatu behar duen rolari. Badirudi egungo krisiak aukera ematen duela politizazio interesatua eta alde batekoa gainditzeko, eta, horrela, sektorearteko akordio eta ekintzarako irekitasun eta borondate politiko handiagoa lortzen dela.

5.5 Nazioarteko testuingurua aukera gisa.

Agenda 2030, nazioarteko hainbat erakunderekin batera (Europar Batasuneko Oinarritako Eskubideen Agentzia, Giza Eskubideetarako Goi Komisarioa, Gizarte Eskubideen Europako Batzordea, Garapenerako Nazio Batuen Progra-

ma, etab.), plataforma eta babes gisa erabiltzen da hirietan oinarritzko GGEEak finkatzen eta betetzen aurrera egiteko.

Ikusi dugun bezala, nazioarteko babes horrek erakundeen hainbat motatako erresistentziak kudeatzeko eta gaingitzeako ere balio du, baita udalerrri barrukoak ere, besteak beste Utrechtan kasua. Alde horretatik, hiri-garapenarekin eta GGEE-ekin lotutako nazioarteko mugimendu eta sareen bidez eratzeak gune politiko-instituzionala irabazten laguntzen dio udalgintzari, eta, horrela, gure gizartearen eta erakundeen demokratizazioan sakontzen du.

5.6 Lege-esparru gaitzailea.

Esperientziek hainbat erataria erabiltzen dituzte GGEE-en kulturaren eraikuntzan sakontzeko tokiko eta nazioarteko lege-esparruak eskaintzen dituen alderdiak eta aukerak (udalaren jarduketaren planak, GGEE-en plan estrategikoak, Europako hiriburutzak, emakumeenganako diskriminazio ororen aurkako nazioarteko konbentzioak, etab.).

5.7 Parte-hartzeko eta udal-politikarako guneak

Aurkeztutako hiru esperientziak, modu batera edo bestera, eragile anitzen (hiritako batzuk horretarako sortuak) arteko lankidetzak eta topaketa-mekanismoetan oinarritzen dira: koalizioak, hiriko kontseilua, udalen arteko sareak, hiriko itunak, foroak, hitzarmenak, GGEE-en bulegoa, lan-mahaiak, etab.).

Hiru kasuetan, gune horiek nolabaiteko lotura/eragin zuzena dute udal-politikako erabakietan. Beraz, ez da nahikoa eragileei parte harraraztea, baizik eta beharrezkoa da administrazio publikoaren eta herritarren arteko interakzio-prozesuei nolabaiteko lotura ematea politika publikoarekin. Parte-hartze instrumental ez lotesleak ez du eragiten hiriaz jabetzea, ezta ekintza koordinaturik ere; are gutxiago GGEE-en eta bakearen kultura kolektiboki eraikitzea gero eta anitzagoa eta askotarikoa den hiri-ingurune batean.

5.8 Bizikidetzak eta aniztasuna.

Hiriak gero eta anitzagoak eta askotarikoagoak direnez, gizarte-sarearekiko harremanak gero eta konplexuagoak dira; izan ere, hainbat gizarte-talde aniztasunerako eskubidea aldarrikatzen dute, hiriko bizitza soziokulturalaz eta ekonomikoaz jabetzeko bide gisa. Horrek, bestalde, oposizio-dinamika bat sor dezake, eta behar bezala artatu eta kudeatu behar da, aniztasuna eta GGEEak errespetatuz.

5.9 Udal-lidertza.

Kasu guztietan ikusten da administrazio publikoak borondate politiko argia eta lidertza duela, nahiz eta partekatutako esperientzietako batzuetan barne-erresistentziak egon. Erakundeen lidertza hori gabe (harremanak eta erabakiak ku-

deatzeko orduan irekiagoa eta malguagoa), oso zaila izango litzateke gainerrako eragile eta sektoreen artean jabetzea eta motibazioa sortzea; are zailagoa hirian GGEE en kultura eraikitzeari dagokionez.

5.10 Erakundeen berrikuntza.

Partekatutako kasuetan, administrazio publikoaren eta herritarren (eta enpresa-sektorearen) arteko harremana malgutzeko eta kokatzeko gai diren erakunde-akordioak garatu edo egokitu dira: Giza Eskubideen bulegoa, bakearen aldeko kulturaren zentroa, etab. Gizartearen eta/edo enpresaren sektorea hiriaz jabetzea bultzatzeak honako hau eskatzen du: edo erakunde gune eta -arkitektura berriak jartzea, edo daudenak berriro nabarmentzea, gero eta konplexuagoa den eta aldeanizkotasun handiagoa duen errealitate batera egokitzeko. Era berean, alde anitzeko ikuspegiak zeharkakotasun handiagoa eskatzen du tokiko administrazio publikoko unitate eta sailen barruan. Hau da, udal-politika batzuk GGEE-en ikuspegitik birbideratzeak udal-erakundeen koordinazio handiagoa eskatzen du.

6. Parte hartzeko gunea. Iñigo Retolaza

Hitzaldiak amaitu ostean, taldean hausnartzeko eta ikasteko denbora egon zen. Taldean hausnartzeko une hori bi galderen inguruan egituratu zen:

1. Aurkeztutako adibideetan eta zure esperientzian oinarrituta, zer baldintza instituzional, sozial eta/edo kultural bete behar dira GGEEak udal-politikean hobeto ezartzeko?
2. Zure lan-eremuaren arabera, zer proposamen zehatz egin litezke hirian GGEE-en kultura sortzeko?

6.1 Baldintzen analisia

Laburki, hirian GGEE-en kultura eraikitzeko beharrezkoak diren baldintzei dagokienez, taldeek egindako ekarpen nagusiak:

Kultura aldatzea

Dagoen kultura politikoa aldatu behar da (gaur egun, areagotu egiten ditu konfrontazioa eta elkarrekiko mesfidantza). Horretarako, balio handiagoa eman behar zaio lankidetzari, parte-hartze lotesleari eta lan partekatuari.

Herritarren artean pentsamoldea aldatzea ere eskatzen du; izan ere, neurri handi batean, herritarrek jarraitzen dute pentsatzen administrazio publikoak konpondu behar dizkiola arazo guztiak. Halaber, aipatu zen administrazio publikoak beldurra galdu behar diola herritarren parte-hartzeari.

Pertsona erdigunean

Administrazio publikoaren alderdi teknikoak ezin zaizkie gailendu pertsonaren premiei. Pertsona erdigunean jartzea eskatzen da (jendarengan konfiantza handiagoa izatea eta gizatasun handiagoa), eta tekniko dena pertsonen premiei erantzuteko egokitzea eta jardutea, ez alderantziz -harremani lehentasuna ematea tekniko-teknologikoari baino.

Pertsonak hirikoak izatearen sentimendua izan nahi dute, baina euren bizitzaren protagonista izanik. Osterantzean, abordatzea oso mugatua da eta ez du sortzen herritarren jabetzarik.

Elkarrizketarako, eztabaidarako eta hitzartzeko guneak

Beharrezkoa da herritarren eta administrazio publikoaren arteko hausnarketarako eta elkarrizketarako guneak instituzionalizatzea, herritarren agenda baten inguruan. Gune horiek udal-politikekin nolabaiteko lotura izatea ere eskatzen da.

Esaten da irekitzen direla elkarrizketarako eta hitzartzeko guneak, baina horrek ez du esan nahi udal administrazioak ekintzak edo doikuntzak egiten dituenik (ez da adostutakoa betetzen). Eta, horrek alden du egiten ditu herritarrak eta haien erakundeak administrazio publikotik.

Tokiko administrazio publikoaren barruko koordinazioa

Behin baino gehiagotan aipatu zen udalak harreman zeharkakoagoak bultzatu beharko lituzkeela bere sailen artean. Horren xedea da erantzukizun eta arazo batzuk besteren esku ez uztea, arazoak konpondu gabe gera ez daitezen. Zeharkakotasunaren elementu hori maiz entzun zen egun osoan zehar, bai hizaldietan, bai elkarrizketa sozialean.

Erakundeen koherentzia

Herritarren eta administrazio publikoaren arteko harreman birtualek ez dute laguntzen pertsonak administrazio publikora hurbiltzen, ezagutzen eta harengan konfiantza izaten, aurrez aurreko harremanek egiten duten bezala. Herritarrek giza presentzia handiagoa eskatzen dio administrazio publikoari.

Herritarrekiko hurbiltasun handiagoa lortu nahi bada, prest egon behar da herritarrak kritikoak izan daitezen, ez pasiboak udal zerbitzuen aurrean edo haien hartzaile soilak. Herritar kritiko horiek hartzen dute parte gizarte-aldaketetan eta GGEE-en kulturaren eraikuntzan.

6.2 Proposamen zehatzak biltzea

Elkarrizketaren azken zatian, tarte labur bat ireki zen arestian aipatutako alderdiei heltzeko moduari buruzko ideia eta proposamen zehatzak biltzeko. Jarraian duzue sortu ziren proposamenen katalogo laburra:

Giza eskubideak eta udal-politika

GGEE-en esparruak presente egon beharko luke udal-politikak eta gainerako esku-hartze publikoak diseinatzean eta ezartzean. Horrek beste diseinu tekniko

bat eskatzen du (Utrecht kasuan bezala), eta administrazio publikoak ulergarria den eta harremanak erraztuko dituen hizkuntza erabiltzea. Halaber, horrek esan nahi du funtzionarioek prestakuntza zehatza izan behar dutela GGEE-en ikuspegia politika publikoaren diseinuan txertatzeari buruz.

Herritarrak eta parte-hartze loteslea

Behin eta berriz adierazi zen beharrezkoa dela elkarrizketarako, entzuteko eta eztabaidatzeko guneak sortzea, gaizki-ulertuak uxatzeko eta gaizki-ulertu horiek sortutako desadostasunak saihesteko. Ziurrenik, gune horiek sortzea beharrezkoa izango da harreman sozial eta instituzional iraunkorrak eta jasangarriak izateko.

Horrekin batera, adierazi zen beharrezkoa dela gune horiek, informatiboak izateaz gain, udal-politikarekin nolabaiteko lotura izatea.

Puntu horri dagokionez, gune horietan adostutakoa betetzea eskatzen da ("gutxieneko itunak lortzea, baina bete daitezela"). Komentatu zenez, auzotarrak ez direnez erabakiak hartzeko prozesuaren parte, ez dute beren herritartasuna erabiltzen ikasten -zerbitzu publikoen erabiltzaile baino ez dira, eta euren eskubideak baliatzen dituzten eta demokrazia eraikitzen duten herritarrak.

Gazteak eta parte-hartzea

Que la juventud participe en el diseño e implementación de las intervenciones que le afectan, a modo de superar el enfoque adulto-céntrico de dichas intervenciones.

Aniztasunaren errespetua eta elkarbizitza

Gazteek eurei eragiten dieten esku-hartzeen diseinuan eta ezarpenean parte hartzea, esku-hartze horien ikuspegia (helduak erdigunean) gainditzeko.

Ikaskuntza soziala eta instituzionala

Sistematizatu egin behar dira funtzionatzen ari diren esperientziak (nahiz eta beste alde batzuetatik etorri).

6.3 Parte hartzeko gunearen laburpena

XXI. mendeko hirietan GGEE-en kulturaren sustapenean aurrera egiteak helburu horretarako beharrezkoak diren baldintzak lantzea eskatzen du. Horien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- I Elkarrizketarako eta askotariko elkartze anitzetarako guneak sortzeko beharra.
- II Adostea eta erabakiak hartzea, itundutako agenda batetik abiatuta (sektorearteko ikuspegi baten arabera).
- III Berrikuntza eta zeharkakotasuna udal-politiken diseinuan eta ezarpenean.
- IV Herri-administrazioaren diskurtsoaren eta praktikaren arteko koherentzia handiagoa, herritarrekin eta gizarte zibileko erakundeekin harremanetan jartzean, udal-istantzia gorenen borondate politikoa.
- V Funtzionarioak prestatzea udal-politikak GGEE-en ikuspegiaren arabera diseinatzeko.
- VI herritarrak eta haien erakundeak XXI. mendeko hirian Giza Eskubideen kultura kolektiboki eraikitzen parte hartzea, modu informatu eta konprometituan. Horrek guztiak esan nahi du paradigma aldatu egin behar dela honako hauei buruz: hiria nola pentsatzen dugun eta bertan nola erlazionatzen garen. Horrek alde bakarreko paradigma alde batera utzi eta alde anitzeko paradigmari heldu behar zaiola. Bizikidetzari eta GGEE-ei dagokienez, posible eta beharrezkoa da beste hiri bat izatea. Erronka handia da, baina ezin dugu gehiago geroratu.

7. Laburdurak

AIPAZ	Bakearen aldeko Ikerketaren Espainiako Elkarte
DDHH	Giza Eskubideak
DEMOSPAZ	Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Giza Eskubideen, Demokrasiaren, Bakearen eta Indarkeriarik ezaren Kulturaren Unibertsitate Institutua
LGTBIQ	LGTBIQ siglak heterosexualaz bestelako genero-identitateak eta sexu-orientazioa dituzten pertsonen egiten die erreferentzia
PAM	Udalaren Jarduketa Plana
PIB	Barne-produktu gordina
UAM	Madrilgo Unibertsitate Autonomia

Programa

GIZA ESKUBIDEAK XXI.MENDEKO HIRIAN

Data: Abenduak 11 (Orduetia: 9:00 – 14:00) Telematika: zoom plataforma

Goizez 2020ko abenduren 11a

- 9:00 – 9:15 **IREKIERA**
Gorka Urtaran Agirre, Vitoria-Gasteizko alkatea
- 9:15 – 9:30 **JARDUNALDIAREN AURKEZPENA ETA INFORMAZIO TEKNIKOA**
- 9:30 – 10:15 **PONENTZIA GIDARIA: GIZA ESKUBIDEEN GAUZATZEA Etorkizunerako analisia eta erronkak. Globaletik tokikotasunera.**
Tica Font i Gregori, Centre Delàs d'Estudis per la Pauko ikertzailea. Institut Català Internacional Per la Pauko zuzendaria (2009-2018). AIPAZen ordezkaria CGLU tokiko hirien eta gobernuen sare globalaren lantaldean. Gizarteratzearen, demokrazia parte-hartzailearen eta Giza Eskubideen Batzordea.
Aurkezten du: Maria Oianguren Idigoras, Gernika Gogoratu.
- 10:15 – 12:00 **MAHAI-INGURUA: ESPERIENTZIA PRAKTIKOAK.**
- Giza eskubideen kultura eraikitzen. Utrechten ikuspegia.**
Hans Sakkers, Soziologoa eta Giza Eskubideen eta Agenda 2030en ezarpen-estrategien arduraduna, Utrechtoko Udala
- Granollerseko hiri-ituna: nahi dugun etorkizuna eraikitzeko konpromiso kolektiboa bultzatzen.**
Alba Barnusell i Ortuño, Granollerseko Udaleko 1. alkateordea, Plangintza Estrategikoaren eta Gobernantzaaren erregidorea eta Bartzelonako Aldundiko Berdintasun Politiken diputatu delegatua.
- Giza Eskubideak, Bakearen eraikuntza eta esku-hartze komunitarioa Madrilgo hirian.**
Carlos Gimenez Romero, Antropologiako katedraduna eta Giza Eskubideen, Demokrasiaren eta Bakearen eta Ez-Indarkeriaren Institutu Unibertsitarioko zuzendaria (DEMOSPAZ). Madrilgo Unibertsitate Autonomia.
- Aurkezten du: Silvia Paredes**, Vitoria-Gasteiz udaleko Bizikidetzeta eta Aniztasun Zerbitzuko arduraduna.
- 12:00 – 12:20 **ETENALDIA**
- 12:20 – 13:50 **DINAMIKA PARTE-HARTZAILEA. HIRIETAN GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO ELKARRIZKETA(K).**
Iñigo Retolaza Eguren. Garapen Integralerako Tokiko Kudeaketan diplomatua (NUR Unibertsitatea, Bolivia) eta Partaidetza, Boterea eta Aldaketa Sozialean Masterra University of Sussex, UK.
Aurkezten du: Itxaso Bengoetxea Larrinaga, Gernika Gogoratu.
- 13:50 – 14:00 **ONDORIOAK ETA ITXIERA**
Miren Fernandez de Landa, Bizikidetzeta eta Aniztasun Zerbitzuko zinegotzia.